

HASIERA	GAIAK	Q
	ANTZERKIAARTEABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETAEUSKARA IRITZI ARTIKULUAKJAIALDIAKJARDUNALDIKITERATURAMUSIKAZINEMA BESTELAKOAK	
	ATALAK	
	KONTALARIAKBEREZIAKBULETINAMULTIMEDIAGURE BAZTERRETATIK KS ARETOA	
	HERRIALDEKA	
	ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGIPUZKOALAPURDINAFARROA ZUBEROAEUSKALHERRIA	
	ZOKKETAK	
	DENDAOSTEKOAKAMAK	

HOME / GAIK / LITERATURA / [BIDEOA] JOANES LOPEZ ZERAINGOAREN BIZITZAREN GORABEHERAK IKERTU ETA 'SUAREN FROGA' ONDU DU PATRI URKIZUK



(argazkia: U. G. Kultur Sharea)

GIPUZKOA LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEOA] JOANES LOPEZ ZERAINGOAREN BIZITZAREN GORABEHERAK IKERTU ETA 'SUAREN FROGA' ONDU DU PATRI URKIZUK

By Ainhoa Lores Aranda / 2021-07-21

Urkizuk errealitatea eta fikzioa uztartu ditu eleberria osatzeko.

Joanes Lopez Zeraingoa du protagonista Patri Urkizuk (Lezo, 1946) idatzitako *Suaren Froga* eleberrri historikoak. Gaur aurkeztu du liburua Donostiako Udal Liburutegian eta ezagutzen ez zuen pertsonaia historiko honekin nola egin zuen topo azaldu du: "Parisen nengoelarik liburu denda batean duela urte batzuk, begi aurrean topatu nuen hainbestetan entzundako eta aipatutako Marcel Bataillon-en *Erasmus et l'Espagne. Recherche sur la vie spirituelle du XVI siècle* tesia, 1937an argitaratua. Liburu benetan funtsezkoa ezagutzeko XVI. mendeko izpirituaeren bizitza eta erasmismoaren nire nobelaren süjeta, zuberotarrek dioten bezala, ezezaguna nuen Joan Lopez de Zerain. Honen bizitzaren eta obraren albiste gehiago jakitea interesgarri iruditu zitzaidan".


Halaxe ekin zion Urkizuk Joanesen bizitza ikertzeari. Protagonista 1488an jaio zen Zerainen eta Granadan bukatu ziren haren egunak, 1530ean, Inkisizioaren suan erreta, luterano kutsuko liburu batzuk idazteagatik.

Idazleak errealitatea eta fikzioa uztartu ditu nobela hau ontzeko, Inazio Mujika **Ereineko** editoreak adierazi duenez, " fikzioa eta errealitatea elkarren osagarri ageri dira eta esango nuke nahiko modu dibulgatiboan dagoela kontatuta, garaia ezagutzeko liburu aproposa da eta edonork irakurtzeko modukoa".

Egileak enkontrua eta solasaldiak asmatu ditu libururako, pertsonaiaren garaikide batzuekin batera: Desiderio Erasmo, Martin Azpilikueta, Inazio Loiolako, Migel Egiako eta Luis Vives dira horietako batzuk.

"Errenazimendua ari gara, erreforma eta kontrarreformaren garaia da, bi doktrina elkarren aurka azken finean, eta hainbat hildako, torturatu eta miseria ekarri zituena, baina argi batzuk ere bai. Batean eta bestean beti daude moderatuak eta muturrekoak. Joanes moderatuetako bat zen, liburu arteko gizona. Gerrako nagusiek ez dute jende pazifistak nahi izaten beren lerroetan, horiek izaten dira haientzat arriskutsuenak, etsaierik gogorrenak baino gehiago, eta Joanes horietako bat zen, pazifista", kontatu du Mujikak.

Fikzioa eta alderdi dibulgatiboa, institutuetan erabiltzeko aproposa dela iritzi dio editoreak, "azken finean liburu hau tolerantziari eta intolerantziari buruzko liburu bat da, eta hori betiko gai bat da".



Zabaldur:

Tags: Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Patri Urkizu, Suaren froga

← BIHAR HASIKO DA ERROBI FESTIBALA ITSASUN	MINTZOLA AHOZKO LANTEGIAK ETA MIKEL LABOA KATEDRAK BI IKERKETA DEIALDI JARRI DITUZTE MARTXAN →
--	--

BILATU

Bilatu ... BILATU



Lege oharra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Saibuzordetzak) diruz lagundua



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

